



Hitzarmenak substantzia estupefazianteen atzipenari, analisiari, zaintzari eta suntsiketari buruzko jarduera-jarraibide uniformeak ezarri nahi ditu

Segurtasun Sailak eta Donostiako Udalak lankidetzak hitzarmen bat sinatu dute, Ertzaintzak Donostiako Udaltzaingoak atzitutako droga analiza dezan

Segurtasuneko sailburuorde Josu Zubiagak eta Donostiako alkate Juan Karlos Izagirrek lankidetzak hitzarmen bat sinatu dute gaur goizean, Ertzaintzaren Unitate Zientifikoak Donostiako Udaltzaingoak atzitutako legez kanpoko substantziak, espediente zigortzailea eragiten dutenak, analizatu eta suntsitu ditzan.

Hitzarmen horren bidez, Donostiako Udaltzaingoiari drogak analizatzeko lanak erraztuko zaizkio, horrek lanak eta beharrezko adituaren txostenak gauzatzeko Ertzaintzaren polizia zientifikoak dituenak baino baliabide tekniko urriagoak ditu eta Horretaz gain, bikoiztasunak ekiditea du helburu, alor honetan ere bai, erakundeen gastuak ere bikoiztu ez daitezten. Gainera, hitzarmenaren bidez, udaltzaingoak konfiskatzen dituen droga toxikoen, estupefazianteen edo substantzia psikotropikoen atzipenari, analisiari, zaintzari eta suntsiketari dagokionez, administrazioetako polizia-zerbitzuentzako jarraibide uniformeak ezarri nahi dira.

Donostiako Udalak sinatu du lehendabizi joan den azaroaren 26an Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu zuen hitzarmen markoa. 50.000 biztanle edo gehiago dituzten udalei eta Herritarren Segurtasuna Babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoak barne hartzen dituen droga toxikoak, estupefazianteak eta substantzia psikotropikoak legez kanpo edukitzearekin eta jendaurrean kontsumitzearekin lotutako eskumen zigortzaileak dituztenei zuzenduta dago.

Hitzarmen horren bidez, Segurtasun Sailak horretatik deribatutako langile eta material gastuak hartuko ditu bere gain, material suntsikorrarekin lotutakoak izan ezik.

Udalak Segurtasun Sailaren laborategietan drogak baieztatzeko proba egiteko material suntsikorraren kostuak baino ez ditu ordaindu beharko.

Eusko Jaurlaritzak 2012ko uztailetik egin ditu 50.000 biztanletik beherako udaletako poliziek konfiskatu dituzten drogen analisiak. Aurretik, Osasuneko Ministerioa arduratzen zen horietan, beste hitzarmen baten ondorioz.

Hitzarmen honi esker, Donostiako Udalak Segurtasun Sailarekin antzeko hitzarmenak dituen 34 udalerriekin bat egin du. Donostiako Udala, gainera, hitzarmena sinatu duen 50.000 biztanletik gorako lehen udala da.

El convenio persigue establecer unas pautas uniformes de actuación en relación a la aprehensión, análisis, custodia y destrucción de sustancias estupefacientes

El Departamento de Seguridad y el Ayuntamiento de Donostia firman un convenio de colaboración para que la Ertzaintza realice los análisis de la droga aprehendida por la Policía Local

El viceconsejero de Seguridad, Josu Zubiaga, y el alcalde de Donostia, Juan Karlos Izagirre, han firmado esta mañana un acuerdo de colaboración para que la Unidad Científica de la Ertzaintza lleve a cabo la analítica y posterior destrucción de las sustancias ilícitas aprehendidas por la Policía Local que hayan dado lugar a la incoación de un expediente sancionador.

De esta manera, el convenio busca facilitar los análisis de drogas a la Policía Local que carece de medios técnicos propios para la realización de las labores de policía científica y peritaje precisas para llevarlas a cabo. Además, con el presente

convenio se quiere establecer unas pautas uniformes de actuación a seguir por los cuerpos policiales adscritos a las administraciones intervinientes, en relación con la aprehensión, análisis, custodia y destrucción de las drogas tóxicas, estupefacientes o sustancias psicotrópicas incautadas por la Policía Local.

El Ayuntamiento de Donostia es el primer Consistorio que firma este convenio marco, aprobado por el Consejo de Gobierno el pasado 26 de noviembre, dirigido a los Ayuntamientos que tienen una población igual o superior a 50.000 habitantes y que ostentan competencias sancionadoras relacionadas con la tenencia ilícita y consumo público de drogas tóxicas, estupefacientes y sustancias psicotrópicas prevista en la Ley Organica 1/1992, de 21 de febrero, de Protección de la Seguridad Ciudadana.

Con la firma del convenio, el Departamento de Seguridad asume tanto con los gastos de personal, como los gastos materiales que se deriven de las mismas, excepto el del material fungible.

Unicamente el coste económico del material fungible por la realización de la prueba de confirmación de drogas en los laboratorios del Departamento de Seguridad será asumido por el Ayuntamiento.

El Gobierno Vasco viene ya realizando desde julio de 2012 las analíticas de las drogas ocupadas por los Cuerpos de Policía local de municipios con población inferior a 50.000 habitantes, que con anterioridad realizaba el Ministerio de Sanidad, previa firma de un protocolo de actuación específico.

Con la firma de este convenio, el Ayuntamiento de Donostia se suma al conjunto de 34 municipios vascos que tienen convenios similares con el Departamento de Seguridad, siendo la capital guipuzcoana el primero de los consistorios de más de 50.000 habitantes que suscribe el acuerdo.

